




elkartu

Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten
Pertsonen Federazio Koordinatzailea
Federación Coordinadora de Personas
con Discapacidad Física de Gipuzkoa



IRISGARRITASUNA

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEEI BURUZKO KONBENTZIOA

9. ARTIKULUAREN (IRISGARRITASUNA) INGURUKO 2. OHAR
OROKORRA

AURKIBIDEA

4 or.

01

ZER DA
KONBENTZIOA?

8 or.

02

ZER DIRA OHAR
OROKORRAK?

10 or.

03

IRISGARRITASU-
NERAKO ESKU-
BIDEA KONBEN-
TZIOAN ETA 2.
OHAR OROKO-
RREAN

18 or.

04

IRISGARRITA-
SUN-ESKUBI-
DEAREN EDUKIA

22 or.

05

IRISGARRITA-
SUNA ETA ZEN-
TZUZKO DOI-
KUNTZAK

24 or.

06

ESTATUEK 9.
ARTIKULUA
GAUZATZEKO
DITUZTEN BETE-
BEHARRAK

28 or.

07

ZEHARKOTASUNA
BESTE ESKUBIDE
BATZUEKIN

01

ZER DA KONBENTZIOA?



Desgaitasunaduten pertsonen eskubideei buruzko nazioarteko konbentzioa 2006ko abenduaren 13an onartu zuten New Yorkeko Nazio Batuen Egoitzan eta 2008ko maiatzaren 3an jarri zuten indarrean, Estatuak sinatu eta berretsi ostean. Horrenbestez, nahitaez betetzekoa da.

Konbentzioak berekin dakartzan berritasunen artean, ondoko hauek nabarmentzen dira:

01

Desgaitasuna giza eskubideekin lotuta dago, izan ere, desgaitasuna duten pertsonak ez dira karitate edo asistentziako politiken «objektu»; aitzitik, giza eskubideen «subjektu» dira.

02

Desgaitasuna medikuntzaren ikuspuntutik ulertzeko modua gainditzeko du –osasun eta asistentzia arloko alderdiak lehenesten ditu horrek–, desgaitasunaren inguruan gizarte-eredu bat ezartzeko, non desgaitasuna urritasunak dituzten pertsonen arteko elkarrekintzaren emaitza baita, gizartean erabat eta eraginkortasunez, besteen baldintza berdinetan, parte har dezatela ekiditen duten jarrera eta ingurunearen ondoriozko hesiak gainditzeko.

03

Desgaitasuna duten pertsonentzat beren autonomia eta independentzia izateak duen garrantzia aitzortzen du, erabakiak hartzeko askatasuna barne.

04

Konbentzioak irizten dio desgaitasuna duten pertsonak aktiboki parte hartzeko aukera izan behar dutela politika eta programei buruzko erabakiak hartzeko prozesuetan, beraiei zuzenen eragiten dietenak barne direla.

Konbentzioaren helburua da desgaitasuna duten pertsona guztiek beren giza eskubideak eta askatasuna erabat eta berdintasunez izango dutela sustatzea, babestea eta ziurtatzea, baita haien duintasunarekiko errespetua bultzatzea ere. (1. artikulua).

HAUEK DIRA
KONBENTZIOAK
AITORTZEN
DITUEN
ESKUBIDE
NAGUSIAK:

Berdintasuna eta
diskriminaziorik eza.

Bizitzeko eskubidea.

Irisgarritasuna.

Justiziara iristea.

Legeak berdintasunez pertsona
gisa aintzatestea.

Libertad y seguridad de
la persona.

Torturaren eta bestelako tratu
edo zigor krudel, anker edo
umiliagarrien aurkako babesa.

Esplotazio, indarkeria
eta abusuen aurkako
babesa.

Pertsonaren askatasuna
eta segurtasuna.

Joan-etorriak egiteko
eta nazionalitaterako
askatasuna.

Osotasun pertsonalaren
babesa.

Modu independentean bizi eta komunitatearen kide izatearen eskubidea.

Mugikortasun pertsonala.

Hezkuntza.

Adierazpen- eta iritzi-askatasuna, eta informazioa eskuratzekoa.

Pribatutasunaren errespetua.

Osasuna.

Etxearen eta familiaren errespetua.

Gaikuntza eta birgaikuntza.

Bizi-maila egokia eta gizarte-babesa.

Lana eta enplegua.



Partaidetza bizitza politikoan eta publikoan.

Partaidetza bizitza kulturean, jolas jardueretan, aisian eta kirolean.




02

ZER DIRA OHAR OROKORRAK?



Batzordeak desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruz taxututako dokumentuak dira. Aipatu Batzordea Konbentzioaren aplikazioa gainbegiratzeko aditu independenteez osatutako organo bat da, Konbentzioan aitortutako eskubideak argitzeko eta Estatuaren interpretaziorako gida modura baliagarri izan dadin.

Orain arte, Batzordeak Ohar
Orokor hauek egin ditu:



- 1. ohar orokorra (2014) - 12. artikulua: Legeak berdintasunez pertsona gisa aintzatestea
- 2. ohar orokorra (2014) - 9. artikulua: Irisgarritasuna
- 3. ohar orokorra (2016), desgaitasuna duten emakume eta neskatoei buruzkoa
- 4. ohar orokorra (2016), heziketa inklusiborako eskubideari buruzkoa
- 5. ohar orokorra (2017), modu independentean bizi eta komunitatearen kide izatearen eskubidea
- 6. ohar orokorra (2018), berdintasanari eta diskriminaziorik ezari buruzkoa
- 7. ohar orokorra (2018), desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzeari buruzkoa, desgaitasuna duten mutiko eta neskatoen barne, horiek ordezkatzan dituzten erakundeetan bidez, Konbentzioa aplikatuz eta jarraituz
- 8. ohar orokorra (2022), desgaitasuna duten pertsonen lana eta enplegua izateko daukaten eskubideari buruzkoa

03

IRISGARRITASUNE- RAKO ESKUBIDEA



Desgaitasuna duten
pertsonei buruzko
Konbentzioaren 9. artikulua
irisgarritasunerako eskubidea
aitortzen du:



1/


Desgaitasuna duten pertsonak modu independentean bizi ahal izan daitezten eta bizitzako esparru guztietan parte hartu ahal izan dezaten, Estatu kideek neurri egokiak hartuko dituzte desgaitasuna duten pertsonen, gainerako baldintza berberetan, ingurune fisiko, garraioa, informazioa eta komunikazioak –informazioaren eta komunikazioen sistemak eta teknologiak barne– eta jendearentzat irekita dauden edo erabilera publikokoak diren beste zerbitzu eta instalazio batzuk –hiriguneetan zein landa-eremuetan– eskura izan dituzaten. Neurri hauen barnean, oztopoak identifikatu eta ezabatuko dira, eta, besteak beste, honako hauei aplikatuko zaizkie:

- a | Eraikinak, bide publikoak, garraioa eta kanpoko zein barruko beste instalazio batzuk, hala nola ikastetxeak, etxebizitzak, instalazio medikuak eta lantokiak;
- b | Informazio eta komunikazio zerbitzuak, eta, bestelakoak, zerbitzu elektronikoak eta emergentzia zerbitzuak barne.

2/

Era berean, Estatu kideek neurri egokiak hartuko dituzte:

- a | Jendaurreko edo erabilera publikoko instalazioen eta zerbitzuen irisgarritasunari buruzko gutxieneko arauen eta jarraibideen aplikazioa garatzeko, aldarrikatzeko eta gainbegiratzeko;
- b | Publikoari irekitako edo erabilera publikoko instalazioak eta zerbitzuak eskaintzen dituzten erakunde pribatuek desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarritasun neurri guztiak kontuan hartzen dituztela ziurtatzeko;
- c | Desgaitasuna duten pertsonen dituzten irisgarritasun-arazoetan inplikaturik dauden pertsona guztiei formazioa eskaintzeko;
- d | Eraikin publiko eta bestelako instalazioetan Braille hizkuntzan edota erraz irakurtzeko eta ulertzeko formatuetan seinaleak jartzeko;




- e** | Gizakiei edo animaliei laguntzeko moduak eta bitartekariak eskaintzea, gidak, irakurgailuak eta keinu-hizkuntzaren interprete profesionalak barne, eraikinetara eta jendearentzat irekita dauden beste instalazio batzuetara sartzeara errazteko;
- f** | Desgaitasuna duten pertsonen asistentzia eta laguntza emateko beste modu egoki batzuk sustatzea, informazioa eskura dutela ziurtatzeko;
- g** | Desgaitasuna duten pertsonen informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietarako sarbidea izan dezaten sustatzeko, Internet barne;
- h** | Informazioaren eta komunikazioen sistema eta teknologia eskuragarrien diseinua, garapena, ekoizpena eta banaketa sustatzea, etapa goiztiar batean, sistema eta teknologia horiek ahalik eta kostu txikienean eskuratzeko.

Era berean, Komitearen 2. Ohar Orokorra, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzkoa, lagungarria da Konbentzioak aitortutako eskubidea interpretatzeko, kontzeptuak argitzeko eta garatzeko, baita Estatu kideei 9. artikuluan aplikatzen eta ezartzen zaizkien betebeharrak betearazteko ere.

04

IRISGARRITASUN- ESKUBIDEAREN EDUKIA



Idea nagusi gisa, 2. Ohar Orokorrak ezartzen du irisgarritasuna aurretiazko baldintza dela desgaitasuna duten pertsonak **modu independentean bizi ahal izateko**, Konbentzioaren 19. artikuluan ezartzen den bezala, **eta gizartean erabat parte hartu ahal izateko** gainerakoekiko **berdintasun-baldintzetan**.

Abiapuntu hori hartuta, irisgarritasunerako eskubidetik arau-educia osatzen duten gogoeta hauek ondorioztatzen dira:

- Ingurune fisikorako, garraiorako, informazioaren eta komunikazioen teknologietarako eta instalazio eta zerbitzu publikoetarako sarbidea ukatzea **diskriminazioaren testuinguruan** aztertu behar da.
- Garrantzitsua da irisgarritasuna bere **konplexutasun osoan** jorratzea, eta kontuan hartzea ingurune fisikoa, garraioa, informazioa eta komunikazioa eta zerbitzuak.
- Ondasunak, produktuak eta zerbitzuak sarrera librekoak izan edo erabilera publikokoak diren heinean, pertsona guztientzat irisgarriak izan behar dute, jabetza duen edo erabilera eskaintzen duen **erakundea agintaritza publiko bat edo enpresa pribatu bat izan**.
- **Desgaitasun mota edozein dela ere, desgaitasunen bat duten pertsona guztien** irisgarritasuna bermatu behar da, inolako bereizketarik egin gabe honako arrazoi hauengatik: arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edo beste mota batekoa, jatorri nazionala edo soziala, ondarea, jaiotza edo beste baldintza batzuk, egoera juridikoa edo soziala, generoa edo adina.
- **Diseinu unibertsala aplikatzeak kostu txikiagoa eragiten du**; horrela, eraikin bat hasieratik irisgarria izatea gerta daiteke eraikuntza-kostu osoa ez handitzea, kasu askotan, edo zertxobait handitzea, batzuetan. Bestalde, eraikin bat irisgarri bihurtzeko egin beharreko egokitzapenen kostua handia izan daiteke batzuetan, bereziki eraikin historiko batzuen kasuan, baina hori ezin da aitzakia gisa erabili irisgarritasunerako oztopoak pixkanaka kentzeko betebeharra saihesteko.

- Diseinu unibertsala aplikatzearen ondorioz, gizartea irisgarriagoa bihurtzen da, **eta onura ez da bakarrik desgaitasuna duten pertsonentzat, gizarte osoarentzat baizik.**
- Irisgarritasuna hiriguneetan eta landa-eremuetan bermatu behar da.
- Desgaitasunen bat duten pertsonak jendeak erabil eta goza ditzakeen **ingurune fisikoak eskaintzen dituen natura- eta kultura-eremueta-rako** sarbidea izan behar dute.
- Desgaitasuna duten pertsonak dituzten irisgarritasun-arazoetan inplikaturik dauden pertsona guztiei eskaini behar zaie **formazioa**: eraikuntza-baimenak ematen dituzten agintariak, irratitelebistako enpresetako zuzendaritza-batzordeak, IKT lizentziak ematen dituzten erakundeak, ingeniariak, diseinatzaileak, arkitektoak, hiri-planifikatzaileak, garraio-agintariak, zerbitzu-hornitzaileak, komunitate akademikoko kideak eta desgaitasuna duten pertsonak eta haien erakundeak.
- **Produktuen garapenean desgaitasuna duten pertsonen parte-hartze zuzena bermatuz gero**, haien beharrak hobeto ulertuko lirateke eta irisgarritasun-proben eraginkortasuna areagotu.
- Objektu, azpiegitura, instalazio, ondasun, produktu eta zerbitzu **berri guztiak** desgaitasunen bat duten pertsonentzat guztiz irisgarriak izateko moduan diseinatu behar dira, diseinu unibertsalaren printzipioen arabera. Estatu kideak behartuta daude, halaber, desgaitasuna duten pertsonak ingurune fisikorako, garraiorako eta informaziorako eta komunikaziorako irispidea izango dutela bermatzera, baita lehendik dauden espazio publikoetara ere. Hala ere, betebeharrak hori gradualki bete behar denez, Estatu kideek epeak finkatu eta baliabide egokiak esleitu behar dituzte dauden oztopoak ezabatzeko.

- Estatu kideek **ikuskapen-mekanismo eraginkorrak** ere agindu behar dituzte, irisgarritasuna bermatzeko eta irisgarritasun-arauak betetzen ez dituztenen aurkako zigorrak aplikatzeko.
- Irisgarritasun-arauak **desgaitasuna duten pertsonen erakundeei kontsulta eginda** hartu behar dira.



05


IRISGARRITASUNA ETA ZENTZUZKO DOIKUNTZAK



Batzuetan, irisgarritasun-arauak ez dira nahikoak pertsona jakin batzuentzat, eta, kasu horietan, doikuntzak aplikatu beharko dira. Egokitzapen horiek Konbentzioan honela definituta daude: *“beharrezko aldaketa eta egokitzapen egokiak, neurritz kanpoko edo bidegabeko karga ezartzen ez dutenak, kasu jakin batean hala eskatzen denean, desgaitasuna duten pertsonen giza eskubide eta oinarriko askatasun guztiak gainerako baldintza berberetan izatea edo baliatzea bermatzeko”*.

Zentzuzko doikuntzen adibideak dira: dauden informazioa eta instalazioak desgaitasunen bat duen pertsona batentzat irisgarriak izatea; ekipoak egokitzea; jarduerak berrantolatzea; zereginen programazioa aldatzea; ikasketa-planen material didaktikoa eta irakaskuntza-estrategiak egokitzea; prozedura medikoak egokitzea; edo laguntza-langileei sartzen uztea, karga neurrigabeak edo bidegabeak ezarri gabe.

Zentzuzko doikuntzak egiteko betebeharra bi zatitan bana daiteke:



Zentzuzko doikuntzak emateko betebeharr juridiko positiboa, beharrezkoa eta egokia den aldaketa edo egokitzapena egiteko, kasu jakin batean beharrezkoa denean desgaitasuna duen pertsona baten eskubideak bermatzeko.

Eskatutako doikuntzek eskubideen berme-emileari neurriz kanpoko edo bidegabeko zamarik ez ezartzea.

Era berean, garrantzitsua da doikuntzen edukia eta irismena zehatz-mehatz zehaztea, indargabetuko duten politikak edo neurriak saihesteko:



"Zentzuzko doikuntzak" termino bakarra da, eta "zentzuzkoak" ez da gaizki interpretatu behar salbuespen-klausula gisa; "zentzuzkotasuna" kontzeptua ez litzateke betebeharraren elementu kalifikatzailetzat edo aldatzailetzat hartu behar. Ez da doikuntzaren kostuak eta baliabideen erabilgarritasuna ebaluatzeko bide bat, hori ondorengo etapa batean egiten da, "neurritz kanpoko edo bidegabeko karga" aintzat hartzen denean. Aitzitik, egokitzapen baten zentzuzkotasuna desgaitasuna duen pertsonarentzat duen egokitasun eta eraginkortasun mailari egiten dio erreferentzia. Beraz, doikuntza zentzuzkoa da baldin eta helburua (edo helburuak) lortzen badu eta desgaitasunen bat duen pertsonaren eskakizunak betetzeko diseinatuta badago.



"Karga neurrigabea edo bidegabea" kontzeptu bakartzat hartu behar da, doikuntzak egiteko betebeharraren mugak ezartzen dituena. Bi terminoak sinonimotzat jo behar dira, ideia berari erreferentzia egiten baitiote: doikuntzen eskaerak gehiegizko edo justifikaziorik gabeko balizko karga bat izango duela muga hori bete behar duen zatiarentzat.



Zentzuzko doikuntzak **ez dira nahastu behar:**

- **berariazko neurri edo ekintza positiboekin**, desgaitasuna duten pertsonen lehen-tasuna emanez eskubideak baliatzeak dakartzan onurak historikoki, sistematikoki edo sistemikoki baztertzen direla konpontzeko (esaterako, sektore pribatuan lan egiten duten eta desgaitasuna duten emakumeen kopuru urria areagotzeko neurriak edota hirugarren hezkuntzan desgaitasuna duten ikasleen kopurua handitzeko laguntza-programak).
- **laguntza ematea**, laguntzaile pertsonalak bezala, modu independentean bizitzeko eta komunitatean sartzeko eskubideari dagokionez, ezta gaitasun juridikoa gauzatzeko babesa.
- justiziaren arloko **prozedura-doikuntzak**, proportzionaltasun ezaren kontzeptuak mugatzen ez dituenak.

Aurrekoa oinarri hartuta, hauek dira zentzuzko doikuntzak egiteko betebeharraren aplikazioa gidatzen duten funtsezko elementuak:

- Desgaitasuna duten pertsonen giza eskubideen gozameneari eragina duten oztopoak de-tekstatzea eta ezabatzea, desgaitasunaren bat duen pertsonarekin hitz eginez.
- Doikuntza bat egin daitekeen ebaluatzea (juridikoki edo praktikan); izan ere, arrazoi juridiko edo materialengatik ezinezkoa bada doikuntza egitea, ezin da gauzatu.
- Doikuntza egokia (hau da, beharrezkoa eta egokia) edo eraginkorra den ebaluatzea, dago-kion eskubidearen erabilera bermatzeko.
- Aldaketak eskubideen bermatzaileari neurritz kanpoko edo bidegabeko karga ezartzen dion ebaluatzea; doikuntza batek neurritz kanpoko edo bidegabeko zama dakarren zehazteko, erabilitako bitartekoen eta helburuaren artean dagoen proportzionaltasuna ebaluatu behar da, hau da, eskubide hori baliatzea.
- Zentzuzko doikuntza egokia izan dadin zaintzea, berdintasuna sustatzeko eta desgaitasuna duten pertsonen aurkako diskriminazioa ezabatzeko funtsezko helburua lortzeko. Beraz, kasuz kasuko ikuspegia behar da, doikuntzaren ardura duen organo eskudunarekin eta inter-dunarekin egindako kontsultetan oinarrituta. Kontuan hartu beharreko faktore posibleen artean honako hauek daude: finantza-kostuak, erabilgarri dauden baliabideak (sorospen pu-blikoak barne), doikuntzak egin behar dituen zatiaren tamaina (integritasunean), aldaketak erakundearentzat edo enpresarentzat dituen ondorioak, hirugarrenentzako abantailak, bes-te pertsona batzuentzako ondorio negatiboak eta osasun eta segurtasuneko betekizunak.
- Kostuek desgaitasuna duten pertsonari oro har eragiten ez dietela bermatzea.
- Frogaren zama eskubideen bermatzailearen gain geratzen dela zaintzea, eta horrek, aldi berean, neurrigabea edo bidegabea dela defendatzea.
- Zentzuzko egokitzapen bat ukatzeko justifikazioa irizpide objektiboetan oinarritu behar da, eta egokiro aztertu eta komunikatu behar zaio doikuntza eskatzen duen desgaitasuna duen pertsonari.
- Estatu kideek sistema independenteak ezarri behar dituzte doikuntzen egokitasuna eta era-ginkortasuna gainbegiratzeko eta konponketa-mekanismo seguruak eskaintzeko.

Garrantzitsua da, halaber, irisgarritasunaren eta doikuntzen arteko lotura nabarmentzea, kontzeptu horiek behar bezala aplikatzeko:

IRISGARRITASUNA	ZENTZUZKO DOIKUNTZAK
<p>Irisgarritasuna emateko betebeharra <i>ex ante</i> betebeharra da. Beraz, Estatu kideek irisgarritasuna emateko betebeharra dute edozein banakako eskaera jaso aurretik.</p>	<p>Zentzuzko doikuntzak egiteko betebeharra <i>ex nunc</i> betebeharra da, eta horrek esan nahi du desgaitasunen bat duen pertsona batek egoera jakin batean behar duen momentutik eska daitekeela, adibidez, lantokian edo eskolan, testuinguru jakin batean bere eskubideez baldintza berdinetan gozatzeko.</p>
<p>Irisgarritasuna pertsona-taldeekin lotzen da.</p>	<p>Zentzuzko doikuntzak kasu indibidualei dagozkie.</p>
<p>Irisgarritasuna exijitu ahal izateko arau batean aurreikusi behar da.</p>	<p>Irisgarritasun-arauetan aurreikusita ez dauden doikuntzak eska daitezke, baldin eta bidegabeko zama ez badira edota banakako justizia egitea helburu badute, beti ere diskriminazioa saihesteko edo berdintasuna bermatzeko, pertsonaren duintasuna, autonomia eta hautaketak kontuan hartuta.</p>
<p>Irisgarritasuna ezartzeko betebeharra baldintzarik gabekoa da, eta horrek esan nahi du ezin dela arrazoi ekonomikorik argudiatu salbuesteko.</p>	<p>Zentzuzko doikuntzak egiteko betebeharra, aldiz, indarrean sartzen da aplikazioa erakundearentzat bidegabeko karga suposatzen ez duenean soilik.</p>
<p>Araua ez betetzea diskriminatzea da.</p>	<p>Araua ukatzea diskriminatzea da.</p>
<p>Betebeharra progresiboa da.</p>	<p>Berehala bete behar dira, ez progresiboki.</p>

06

ESTATUEK 9. ARTIKULUA GAUZATZEKO DITUZTEN BETEBEHARRAK



Konbentzioa sinatu eta berretsi duten Estatu kideek honako betebeharrak dituzte irisgarritasun-eskubidea bermatzeko:

- 01** | Irisgarritasuna bermatzea, mailaz mailako aplikazio baten bidez. Egoeraren azterketa egin daiteke, modu eraginkorrean eta epe laburrean ezabatu behar diren oztopoak eta trabak identifikatzeko. Oztopoak etengabe eta sistematikoki kendu behar dira, pixkanaka baina etengabe.
- 02** | Irisgarritasun-arau nazionalak onartzera, aldarrikatzera eta gainbegiratzera. Horren barruan sartzen da irisgarritasunari buruzko legeak sakon aztertzea, legerian eta aplikazioan dauden hutsuneak identifikatu, kontrolatu eta konpontzeko.
- 03** | Lege eta araudi horien azterketa eta onarpena elkarlanean egingo da desgaitasuna duten pertsonekin eta horiek ordezkatzeko dituzten erakundeekin, baita beste interesdun batzuekin ere: komunitate akademikoko kideak eta arkitektoen elkarteak, hiri-planifikatzaileak, ingeniariak eta diseinatzaileak.
- 04** | Legeriak diseinu unibertsalaren printzipioa jaso behar du, eta horretan oinarritu.
- 05** | Irisgarritasuna sartu behar da arau sektorialetan (eraikuntza, garraioa, informazioa, komunikazioa, etab.), baina baita aukera-berdintasunari, berdintasunari eta parte-hartzeari buruzko legeetan ere, desgaitasunagatiko diskriminazioaren debekuaren testuinguruan.
- 06** | Irisgarritasuna ez betetzea debekatutako diskriminazio-ekintza gisa definitu behar da argi eta garbi.
- 07** | Ingurune fisikorako, garraiorako, informaziorako eta komunikaziorako edo espazio publikoetako zerbitzuertarako sarbidea ukatu zaien desgaitasunen bat duten pertsonen baliabide juridiko eraginkorrak izan behar dituzte.

- 08** | Irisgarritasun-arauek kontuan hartu behar dute desgaitasuna duten pertsonen aniztasuna, eta bermatu behar dute irisgarritasuna emango zaiela bi generoetako pertsoneri, adin guztietakoei eta edozein desgaitasun-mota dutenei.
- 09** | Erakunde publikoek eta pribatuek eskaintzen dituzten zerbitzuetarako gutxieneko irisgarritasun-arauek ezarri behar dira.
- 10** | Eskuratzen diren ondasun eta zerbitzu berri guztiak irisgarriak izan behar dute desgaitasuna duten pertsonentzat.
- 11** | Kontratazio publikoko prozedurek irisgarritasun-baldintzak jaso behar dituzte, bai eta ekintza positiboko neurriak aplikatu ere, desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasuna eta berehalako berdintasuna bermatzeko. Onartezina da funts publikoak erabiltzea zerbitzuen eta instalazioen irisgarritasun ezaren ondorioz ezinbestean sortzen den desberdintasuna iraunarazteko.
- 12** | Egun dauden irisgarritasun-oztopoak identifikatzeko ekintza-planak eta estrategiak ezartzea, epe espezifikoak dituzten egutegiak finkatzea eta oztopoak ezabatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak ematea. Behin onartuta, ekintza-plan eta estrategia horiek zorrotz aplikatu behar dira.
- 13** | Funts nahikoak ematea irisgarritasun-oztopoak ezabatzeko eta oztopo horiek gainbegiratzeko ardura duten langileei formazioa ematea.
- 14** | Ikuskapen-esparru eraginkor bat sortzea eta ikuskapen-organo eraginkorrak ezartzea, gaitasun egokiarekin eta agindu egokiekin, planak, estrategiak eta normalizazioa aplikatzen eta betetzen direla bermatzeko.

07

ZEHARKOTASUNA BESTE ESKUBIDE BATZUEKIN



Irisgarritasunerako eskubidea Konbentzioan aitortutako beste giza eskubide batzuekin disfrutatzeko eskubidearekin lotuta dago:

- Diseinu unibertsaleko ondasunak, zerbitzuak, ekipamendua eta instalazioak garatzeko betebeharrak (4. artikulua, 1go paragrafoa).
- Berdintasuna eta diskriminazio eza (5. artikulua).
- Berehalako neurri eraginkor eta egokiak hartzea gizartea sentsibilizatzeko, baita familia mailan ere, desgaitasuna duten pertsonen inguruan kontzientzia handiagoa har dezan eta pertsona horien eskubideen eta duintasunaren errespetua susta dezan (8. artikulua).
- Arrisku-egoeretan, hondamendi naturaletan eta gatazka armatuetan, larrialdi-zerbitzuek desgaitasunen bat duten pertsonen eskura egon behar dute, gainontzean ezinezkoa izango da pertsona horiei bizitza salbatzea edo haien ongizatea babestea (11. artikulua).
- Ezin da justiziarako sarbide eraginkorrik egon, baldin eta legea betearazteko eta justizia administratzeko ardura duten erakundeak kokatuta dauden eraikinak fisikoki irisgarriak ez badira desgaitasuna duten pertsonentzat; gauza bera ematen dituzten zerbitzuak, informazioa eta komunikazioa eskuragarriak ez badira (13. artikulua).
- Desgaitasunen bat duten pertsonak jasan dezaketen indarkeriaren, abusuaren eta esplotazioaren aurrean babes eraginkorra eta esanguratsua eskaintzeko, bereziki emakumeen eta haurren kasuan, harrera-zentroek, laguntza-zerbitzuek eta prozedurek irisgarria izan behar dute (16. artikulua).
- Ingurune-fisikoaren, garraioaren, informazioaren eta komunikazioaren eta zerbitzuen irisgarritasuna aurretiatzeko baldintza da desgaitasuna duten pertsonak beren toki-komunitateetan parte hartzeko eta modu independentean bizi ahal izateko (19. artikulua).
- Estatu kideek egokiak diren neurriak hartuko dituzte desgaitasuna duten pertsonak adierazpen- eta iritzi-askatasunerako eskubidea gauzatu dezaten, informazioa eta ideiak biltzeko, jasotzeko eta emateko askatasuna barne, gainerako baldintza berberetan eta aukeratzen duten edozein komunikazio-moduren bidez (21. artikulua).

- Eskoletarako garraio irisgarririk gabe, eskola-eraikin irisgarririk gabe eta informazio eta komunikazio eskuragarririk gabe, desgaitasuna duten pertsonak ez lukete hezkuntzarako eskubiderik izango (24. artikulua).
- Osasuna-arretak eta gizarte-babesak desgaitasunen bat duten pertsonen irismenetik kanpo jarraituko dute, zerbitzu horiek ematen diren eraikinetara sartzerik ez badute. Bereziki garrantzitsua da osasun-arretan irisgarritasunaren genero-dimentsioa kontuan hartzea, batez ere desgaitasuna duten emakumeen eta neskatuen ugalketa-osasunaren arretan, zerbitzu ginekologikoak eta obstetrikokoak barne (25. artikulua).
- Lantokia bera irisgarria ez bada, desgaitasuna duten pertsonen lanerako eta enplegurako eskubidea urratuta geratzen da (27. artikulua).
- Estatu kideek beharrezko xedapenak onartu behar dituzte ziurtatzeko desgaitasuna duten pertsonen gizarte-babeseko neurri eta zerbitzu orokorrak eta espezifikoak modu irisgarrian eskaintzen zaizkiela, eraikin irisgarrietan eta informazio eta komunikazio euskarri irisgarrietan (28. artikulua).
- Desgaitasuna duten pertsonak bizitza politikoan eta publikoan parte hartzeko eskubiderik ezingo dute gauzatu, baldintza berberetan eta modu eraginkorrean, baldin eta Estatu kideek ez badute bermatzen hauteskunde-prozedurak, instalazioak eta materialak egokiak, eskuragarriak eta ulertzeko eta erabiltzeko errazak ez badira. Gauza bera gai publikoen zuzendaritzan ere (29. artikulua).
- Bizitza kulturean, jolas-jardueretan, aisialdian eta kirolean parte hartzeko eskubidea, gainera, baldintza berberetan (30. artikulua).
- Nazioarteko lankidetzaren esparruan egindako inbertsio berri guztiak gaur egungo oztopoak ezabatzeko eta berriak ez sortzeko erabili behar dira. Onartezina da funts publikoak baliatzea desberdintasun berriak betikotzeko (32. artikulua).
- Irisgarritasuna gainbegiratzea Konbentzioaren aplikazioaren jarraipen nazionalaren eta nazioartekoaren funtsezko alderdi bat da (33. artikulua).
- Konbentzioaren testua formatu irisgarrietan zabaldu behar da (49. artikulua).



Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten
Pertsonen Federazio Koordinatzailea
Federación Coordinadora de Personas
con Discapacidad Física de Gipuzkoa